

Ane, Laia eta June izan dira izen ugarienak neskatoetan eta Oihan, Martin/Martín eta Markel mutikoetan azken hiru urteetan Euskal AEn

Ane da neskatoen izen gogokoena 1998az geroztik

Eustatek Euskal Autonomia Erkidegoan 2022tik 2024ra bitartean izandako jaiotzen inguruan emandako informazioaren arabera, Ane da gurasoen lehentasunean lehen postuan dagoen neskato-izena, 1998az geroztik gertatu den bezala (datuak hirurteka hartuz). Bigarren eta hirugarren postuetan Laia eta June daude eta, ondoren, Malen, Nora eta Nahia azaltzen dira.

Oihan da mutikoen artean izen gogokoena, eta ondoren datoz Martin/Martín eta Markel. Horien atzetik, Julen, Aimar eta Luka dira gogokoenak.

2022-2024 aldirako neskatoen 25 izen nagusien multzoan Maren sartu da eta Naia atera da, 2020-2022 aldiarekin alderatuta. Mutikoen izenei dagokionez, Hugo, Paul, Izan eta Liam sartu dira taldean, Iker, Ekhi, Adei eta Hodeiren ordean.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du. Ehun izen ugarienen artean ez da konposaturik agertzen, garai batean oso-oso ohikoak ziren arren.

Izen beraren grafia desberdinak

Euskal izenak dira nagusi, batzuetan bi grafia agertzen direlarik; besteak beste, Ane-Anne, June-Yune-lune, Leire-Leyre, Nahia-Naia, Jon-Ion edo Aritz-Haritz dira horietako batzuk, baina izen desberdin gisa tratatzen dira.

Atzerriko nazionalitatea duten amek ere izen euskaldunak aukeratzen dituzte beren alabentzat

Amen nazionalitatea kontuan hartuz gero, atzerriko nazionalitatea zutenek ere (aldi horretako jaiotza guztien % 25,1) izen euskaldunak aukeratu zituzten, batez ere alabentzat, baina ordena orokorrari dagokionez aldeak izan ziren. Neskatoen kasuan, bost izen gogokoenen artean bi euskaldun daude: Alaia (arabieraz ere badu esanahia) eta Ainara, lehen eta bosgarren postuetan, hurrenez hurren. Zerrendako bigarren postuan Amira agertzen zen, eta, ondoren, Sofia/Sofía eta Sara, laugarren postuan.

Mutikoen kasuan, ez dago izen euskaldunik lehenengo bosten artean, eta Ander da agertzen den lehena, hamargarren postuan. Lehenengo postuan Adam (izen hebrearra) agertzen da, bigarrenengan Mohamed (jatorri arabiarrekoa), hirugarrenengan Mateo, laugarrenengan Rayan eta bosgarrenengan Liam.

Maria, Leire eta Nerea dira amen artean izen ohikoenak, eta Mikel, Jon eta Aitor aiten artean

2022-2024 aldiko 40.026 jaiotzak kontuan hartuta, aldi horretan ama izan ziren emakumeen artean 10 izen ohikoenak Maria, Leire, Nerea, Amaia, Ane, Laura, Ainhoa, Naiara, Maitane eta Janire izan ziren. Emakumeen belaunaldi horietan, gehienak 1982 eta 1995 artean jaiotakoak, hamar izen ohikoenetatik zortzi euskaldunak ziren, baina oraindik gaztelaniazkoak eta Maria zeramatenak agertzen ziren.

Urte horietan aita izan ziren gizonei dagokienez, 10 izen errepikatuenak Mikel, Jon, Aitor, Iker, David, Asier, Iñigo, Ander, Xabier eta Javier izan ziren. Kasu honetan, aita horiek batez ere 1979 eta 1993 bitartean jaio ziren; garai horretan izen konposatuen lekua izen soilek hartuta zuten, eta izen euskaldunak jada nagusi ziren.

Euskal AEko jaiotzetan gehien erabiltzen diren 25 izenak. 2022-2024

	Neskak			Mutlak		
	Izena	Maiztasuna	%	Izena	Maiztasuna	%
1	Ane	353	1,81	Oihan	387	1,89
2	Laila	345	1,77	Martin/Martin	367	1,79
3	June	318	1,63	Markel	350	1,71
4	Malen	312	1,60	Julen	328	1,60
5	Nora	307	1,57	Aimar	306	1,49
6	Nahia	241	1,23	Luka	289	1,41
7	Alaia	240	1,23	Jon	276	1,35
8	Maddi	239	1,22	Aiur	255	1,24
9	Lucia	220	1,13	Luken	251	1,22
10	Irati	218	1,12	Ibai	246	1,20
11	Izaro	218	1,12	Izei	239	1,17
12	Martina	208	1,07	Ander	235	1,15
13	Sofia/Sofia	186	0,95	Danel	227	1,11
14	Noa	177	0,91	Oler	218	1,06
15	Haizea	171	0,88	Mikel	209	1,02
16	Uxue	170	0,87	Mateo	205	1,00
17	Elaila	169	0,87	Telmo	177	0,86
18	Sara	169	0,87	Unax	176	0,86
19	Enara	168	0,86	Hugo	173	0,84
20	Libe	168	0,86	Unai	173	0,84
21	Mara	167	0,86	Amets	171	0,83
22	Elene	165	0,85	Paul	156	0,76
23	Lea	157	0,80	Leo	153	0,75
24	Jare	145	0,74	Izan	143	0,70
25	Maren	139	0,71	Liam	142	0,69

Data 2025eko Urriaren 7a

Iturria: Eustat. Jaiotzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: <mailto:servicioprensa@eustat.eus> Tel.: 945 01 75 62